

Alex Lopez Lasa

Emaila • 1 saria

Alexander Lopez Lasa naiz, eta urtarrilaren 2an 12 urte bete nituen 4.urtea da dagoeneko. La salle ikastetxetik, Olentzeroren astoaren gainean , Agerreko pagadian zehar eta zikoina bat languntzat dudalarik txokolateari buruzko istorio batekin natorkizue haurten... Beraz, ez da gehiegizkoa txokolateak nigan duen eragina liluragarria dela esatea.Txokolatea nik bezain gustukoa baduzue istorio honekin gozatuko duzuela ziur nago.

Mila esker Oihane eta Maialen zuek irakatsi baizkidazue idazle izateko lehen pauso hauek.



BARRENETXE

Banekien txokolateak izugarrizko boterea zuela. Botere magikoak esango nuke. Bere botereak zeruraino iritsiko zirenik ez nekien ordea.

Neguko arratsalde gehienetan egiten genuen bezalaxe, arratsalde hartan ere Barrenetxe gozotegira joan ginen txokolate beroa hartzeko asmoarekin. Kristalezko ate pisutsu hura irekitzearekin bat irribarre bat marraztu zitzaidan aurpegian, txokolatearen goxoaren usainak eragindako irribarrea. Nire birramonak arrazoi zuen "txokolate hau arimaren bizigaia da" esaten zuenean.

Hurreneko mahaian eseri ginen, garai batean Barrenetxe gozotegia izan zenaren argazki baten azpian kokatzen zen hartan. Argazkiari begira-begira gelditu nintzen: "Zugarramurdi" zihoen argazkiaren behe-eskuineko iskinean.

-Zugarramurdi,sorginen lurraldea... -pentsatu nuen

-Aspaldi batean gertatu zen istorio bat kontatzea nahi al duzu mutiko?-entzun nuen atzealdetik -Sorginen eta Barrenetxetarren lurraldean gertatu zen istorioa aditu.

Garai hartan, Barrenetxetarrak, kakao izeneko hazi bat erosi berri zioten Zugarramurditik igaro zen saltzaile bati. Zirudienez ez zen munduan hazi horrek emandako fruitu hura baino liluragarriagorik; saltzailearen hitzetan: Jainkoen elikagaia omen zen mundu berritik ekarritako hazi itsusi hura.

Horrela ba gozogileak bi zaku kakao hazi erosi zizkion, oparitzat arto zaku bat eta larruzko zakutxo bat jasoz.

Hasiera batean Barrenetxeko etxekoandreak ez zuen begi onez ikusi bere senarrak egindakoa.

-Baina ze jainko eta jainko ondoko...! Ez ahal dugu ba nahikoa sorginen kondairekin? Apaiz-jaunak honen berri badu ...

-Zaude lasai Dominika...Jainkoen elikagaia bada jainko berak babestuko gaitu...

Saltzaileak esan bezala ilargi beteko gauean zakukada bat hazi xehetu zuten Barrenetxetarrek. Hauts marroixka eta leun batek tindatu zituen Barrenetxetarren aurpegiak. Berri ona herri osoan zabaldu zuten.

Hurrengo ilargi beteko gauean behirik onenaren esne eta esnegainarekin nahastu eta irakiten jarri zuten guztia, kobrezko pertza batean. Hura zen usaina hura... sudur zuloetatik gorputz guztiraino zabaltzen iristen zen usaina. Arima berpizten zuen usaina...

Kanpaiak inoiz baino ozenago jotzen ari ziren Barrenetxekoak beren gozoa probatzeko asmotan pertzara hurbildu zirenean .

-Dominika,Manuel! Goikoetxea baserriko familia guztia atxilotu dute! Bai eta Furundarena eta Salegi baserriko seme-alabak ere! Mendiko koban dantzan eta kantuan ari omen ziren eta Iruñako apezpikuak jainkoaren izenean eraman ditu Elizondora; iloba Juana ere beraiekin omen zegoen. Deabruaren jarraitzaileztat, sorgintzat jo dituzte...Ene bada! Gurdi batean sartu dituzte ur bedeinkatuz bustita...!

-Jainko maitea! Gure iloba Juana sorgina? Eta zertara eraman dituzte Elizondora?-galdetu zuen atsekabetuta Dominikak.

-Dirudienez Jaungoikoaren izenean Urdaxeko bost familia orain dela bi aste atxilotu zituzten eta epaitu ondoren herriko plazan su eman zieten...!

-Manuel zerbait egin beharra daukagu. Juana ez da sorgina ez eta besteak ere.

-Jaungoikoaren izenean esan al duzu? Jaungoikoaren izenean bada nik jainkoaren elikagaia emango diet.-esan zuen Manuelek begi biziz.

-Ez zara ausartuko daukazun nahaste hori apezpikuari ematea ezta?

-Zer bestela?Apezpikuaren eskuetan gaude.

Horrela ba kobrezko pertza hori idi gurdi batean igo eta elizondoko bidea hartu zuten. Apezpikuaren etxera iritsi eta pare bat aldiz kolpatu zuen izugarrizko gurutze handi bat zuen atea.

-Opari bat dakarkiot apezpikuari. Arima poztuko dion oparia.

-Oparia bada ongi etorria izan dadila.Aurrera!

Etxe atarira sartu orduko hantxe ikusi zituen atxilotuak; bere iloba Juana han zegoen, negarrari ezin eutsirik.

-Opari bat ekarri omen duzu niretzat?

-Bai, halaxe da. Arima piztuko dizun jainko zerutarren jana.

-Ea ea... ez da hainbesterako izango. Emadazu ba probatzeko.

Manuelek egurrezko koilara kobrezko pertzan sartu eta jaki beroa eskaini zion apezpikuari, Dominikak aitaren egiten zuen bitartean. Koilara ahoan sartu orduko apezpikuaren bihotza taupadak azkartzen hasi zitzaizkion eta begiak dir-dir egiten zizkioten. Irribarre handi batek argitu zuen bere aurpegia eta inoiz ikusi gabeko zerua agertu zitzaion begien aurrean.

-Jainkoen janaria da hau, jainkoen edaria!...eta nire izenean eta jainkoaren onespenarekin libre geldi daitezela atxilotu guztiak!

Dominikak eta Manuelek kobrezko pertza bete txokolate galdu zuten, baina Zugarramurdik bere biztanleak eskuratu zituen. Eta gozoen herri hartan sorginik ez.

Txokolate usainak Donostiako Barrenetxera ekarri ninduen bueltan. Hura boterea hura txokolatearena. Hura magia hura gozoarena.